

Euskal AEko industria-jarduera % 1,1 murriztu da 2024ko uztailean


Aurreko hilaren aldean industria-produkzioa % 2,7 jaitsi da

Eustaten datuen arabera, 2024ko uztailean Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 1,1 txikiagoa izan da, lan-egutegi homogeenari dagokionez.

Aurreko hilabetearekin alderatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera % 2,7 murriztu da azken hilabeteen, urtaroen eragina zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunetan* produkzioak urte arteko portaera negatiboa izan du 2024ko uztailean, eta produkzioa % 2,1 jaitsi da sektore osoa kontuan hartuta. Beherakada hori *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* zein *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* portaerak eragin du, % 5,3 eta % 1,4 jaitsi baitira, hurrenez hurren. *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* artean, besteak beste, altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa sartzen da. *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* artean, bestalde, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketa- eta higiene-produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta janzteko arropen ekoizpena agertzen dira.

Ekipamenduko ondasunen produkzioa (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautikaren edo itsasontzien eraikuntza barne hartzen dira) % 1,3 igo da aurreko urteko uztailearen aldean.

Bitarteko ondasunetan (metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne hartzen dira) produkzioa % 1,3 jaitsi da.

Azkenik, *Energiaren* produkzioa ere jaitsi egin da 2024ko uztailean, % 3,1 aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Uztaila 2024

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	-1,1	-0,4	-2,7
Araba/Alava	-2,4	-2,3	-3,3
Bizkaia	-1,4	-1,3	-1,9
Gipuzkoa	-0,1	1,7	-3,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-2,1	-2,0	-1,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-5,3	-7,0	0,5
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-1,4	-0,9	-1,8
Ekipo-ondasunak	1,3	3,0	-2,0
Bitarteko ondasunak	-1,3	-1,7	-2,1
Energia	-3,1	0,6	-2,4

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarritetik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2024ko Irailaren 9a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da 2024ko uztailean hiru lurralde historikoetan: Araban produkzioa % 2,4 jaitsi da, Bizkaian % 1,4 eta Gipuzkoan, azkenik, industria-produkzioa % 0,1 jaitsi da.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Uztaila 2024

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	0,1
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	2,7
Kautxua eta plastikoak	-3,0
Metalurgia eta produktu metalikoak	-1,3
Materiala eta tresna elektrikoak	4,6
Makineria eta tresneria	0,0
Garraio-materiala	-3,1
Energia elektriko, gasa eta lurruna	-6,0

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2024ko Irailaren 9a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2024ko uztailean, urte artean, produkzioaren jaitsiera handiena izan dutenak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 6,0) eta *Garraio-materiala* (% 3,1) izan dira. Aitzitik, urte arteko hazkunderik handienak *Material eta ekipa elektrikoan* (% 4,6) eta *Zura, papera eta arte grafikoetan* (% 2,7) izan dira.

2024ko UZTAILEKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen zazpi hilabeteetako balantze metatuan, Industria-produkzioaren indizea % 0,4 jaitsi da. Uztailera arte metatutako produkzioa % 2,0 jaitsi da *Kontsumo-ondasunetan* eta % 1,7 *Bitarteko ondasunetan*. *Ekipamenduko ondasunek*, aldiz, bilakaera positiboa izan dute, produkzioa % 3,0 igo baita aurreko urteko aldi metatu beraren aldean. *Energian*, bestalde, uztailera arte metatutako produkzioa % 0,6 igo da.

Lurralde historikoen arabera, 2024ko lehenengo zazpi hilabeteetako balantze metatua balantze negatiboarekin itxi da Araban eta Bizkaian, produkzioa % 2,3 eta % 1,3 jaitsi baita, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, produkzioa % 1,7 igo da, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **81,85**eko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62